# EUZKEL - ATALA

## ARRASATE

EUSKEL EGUNA

"Euskaltzaliak" aurten Andoain'en egitia erabaki dute oraiñ arte egindanik eta aundiena batez ere ume jayak, edo sariketak. "Kristau ikasbidia" eta irakurten eta idazte euskeraz onduen dakixenai.

Arrasateko euskaltzaliak ondo dakigu zeiñ biarrekua dan txindixa (dirua) euskel egunak egiteko, ta jai oneik antolatzeko arduria artu dutenak txiruak dira diruz. Asmu onez beterik egon arren euren goguak, eta gu, Arrasatetar guztiok beartuak gaude geuri lagundu euskuen eran geuk ere laguntzeko aiñ jai ederrak antolatzen dituen bazkunai.

Arrasate'ko Eupada'ri Euskalerri guztitik erantzun eutsien eta guk entzunda gor egingo ete degu? ¡Ez!

Arpidia "Eusko Gaztedi" Batzokian zabalik dago gaurtik, eta atzera begira egon barik emon dayogun poztasun puskat "Euskaltzaleai" euren lanak aldan onduen eruateko.

EUSKO LANGILLIAK OTXANDIXON

Iragarrita eguan lez, igandian euki zuten batzar bat ango geure anai langilliai erakusteko "Langillien alkartasuna eta eusko anaitasuna"-ren bidez lortuko dituen obari "mejorak", emendik aldratxo bat juan giñan mendiz eta gu eldu orduko an egozan Bilbo, Eibar eta Durangotar aldra eder bat goixetik bazkaiteko gogua egiteko pelota-partidu eta abar jolastu giñan, bañan guaixan jokulari obiak agertu ziran.

*Batzarra* arratsaldeko lauretan "Cafe de la Amistad" bete beterik eguen izlarien agerketa egin zuan gure antxiñako lagun zintzo Robles-Arangiz' Imanol'ek eta gero Gaztelu Eibarkuak euskera samur-samurrian eta ondoren "Errotari" euskel idazliak erderaz elkartasunen bidez "Comite Paritario"-ak daukaten obariak langillientzat. Amaitu zuan Robles'ek argi erakutsirik, langillien obari guztiak lortzeko sozialista eta eleixien eta euskalerriaren arerixo egin biarrik ez dagola. Eusko langilliak gaur, da beti langille alde zintzuago jokatzen dauela eta Otxandixo ere eusko langillien bidez gaizkatuko dala.

LAISTER EIBAR'EN

Euko dute Eusko-langilliak batzar eder bat, eta aukeratu leikenik erririk egokiena eta langilliena aukeratu dute, eta batzar artara guztiok gaude beartuak juatera urrengo astiroago itz egingo degu gai onetzaz.

EZKONTZA

Asteazkenian 28'an Aramayo'n ezkoncuko da emengo "Uribe" baserriko Mondragon Bernardo Leaniz Barrutia' Miren Aramayotar neskatil lirañakin. Zorionak.

'ABESLARI GAZTIAK DEBA'RA

Emengo Deun Yon Ugutzaliaren eleizako abesurren (tipliak) lengo egunian ibillalde bat egin zuten eta guztiak pozpozik etorri dira.

TXISTULARIAK BILBO'N

Arrera ona egin dotziela ta pozik etorri dira gure txistulariak.

"URIBARRI"-KO JAYAK

Deun Bartolomé'ren omenez egun onei tan ospatzen du Uribarri auzuak.

UDALA-MENDI.

## AZKOITI

Linazasoro Karla euskel idazle "Altzetari", zure aide Elortza Iñaki abertzale zintzota abeslari jatorren eriotz uste gabekoa jakitean, gure biotzak itun du ziran ¿nola ez? gogoratzen geranok aren abesti gozuak entzuten nola egon-giñan "Garbiñe" antzeztu zutenian, Debatar antzerlari bikañak, Iñaki gaixua, gure Jaunak donokiratu dezala, betiko bizitzan berakin izateko. G. B. Artu zazu nere agur samiña eta beste zure lagun guztiena ere. Atsekabian laguntzen diogu zure arreba aita ama eta senide guztiari eta zuk irakurlia, otoi aren gogoen aldez.

Igaro ziran gure uriko Andre Mari eta Deun Erroka jaiak, guztiz alaiak izandu diranak, baña danetan geiena atsegin zaiona izandu da laugarren eguna uri guztian, ezpatadantzari ederrak aurreskolari eta neska mutil bikoen dantza berdin gabekoak zelan dantzatu, onelako sariak ikusgarri dira, eta aurrera ere jarrai dezala oitura eder orrek.

NASKALDIA

Agurtu ditugu Alberdi Joseba Miren eusko langilien idazlari Gipuzkoan eta euskel idazle "Kalumuko Aixeria" lagunak.

EUSKAL-EGUNA

Iragartzen dute datorren illerako Andoaiñen, Aita Larramendi'n jaio errian antolatzeko txindia biar dan, guk ere lagun du biar diogu dezakegun eran, euskotar biotz onekoak bagera, gure euskozaletasuna beardan lekuan ipiñirik.

Andoain'go euskel eguna antolatzen dezuten batzordiari, baditugu emengo Eusko Batzokian ezpatadantzariak biarik badezute egun ori geitzeko.

OKER BAT ZUZENDU

Nere azken idatzian etzan argitaraldu gure lagun Goenaga Pirimiñi batzokiko artezkariak eman dion laguntza, ta nai da jartzia 50 laurleko zirala.

EGI-ALDE.

## AZPEITI'TIK

TXALINTXO

Zirazkatik zortera dion izkeragatik. Zeru txiki bat egingo lukean erriko seme bat degu ondorengo itzaldia berarena da.

Nere erritar euskel-zale sutsubak: Ni, euskel idazle arlote onek artzen det lumea zubei, nere erritar jatorrai aditzera emateko nola aurten euskelzale sutsubak beren euskel asteko jaiak, merezi duten ospatasun guzian jaietzteko, Andoain erri dana polita esleitu duten, eta bertan egiten diran egite loretsu danak bertako seme argitsu. Aita Larramendi agurgarriaren oroimenian egiñak izango dira.

AZPEITIAR JATORRAK

Erki ontako euskel jaiak ospatsuenetakoak izan oi dira Mutriku, Arrasate ta Zumarragakoak, izan zezkien politenak izan ziran, Andoain'en izango diranen antolatzaleak diotenez beste jai danen goi mallanekoak izango dira.

Bai, irailaren 15 ta 21 ta, ta 22'ea gogoan garriak izango dira euskel zalen oroimenian egun oietan euskel-biotzak zabal ta pozkidian izango diran Ama euskeraren babesian. Danen gain.

21'garrena.—Izango da Euskel-aurren laia. Irakorle. Gaurko aurrak, bigar gizon izango dira, ta gaur aur oiei Ama euskeraren maitasunian biotzak jazten bazazkobe, gero gizon diranean oiek izango dira min aldietan Ama beraren gozotasun guzia, ta gaur aur oiegatik egiten dana gutxigi izango da.

JAI OIEN ANTOLATZALEAK

Jai oiek ospatzu dienian sari aundiakin nai lituzke egin bañan ikusten dezuten bezela asko bear da, ta guzioi batere zizkue minzatu gabe, izateko.

ARPIDEA

Iriki da, ta danok zizkuak erantzuten duban eran saria eman. Zenbat eta geiago batu orduban da jai ederrago ta sari aundiagoak antolatu. Ori ta geiago merezi dute aur maitegarri oiek.

Esan det: "Txalintxo", Aginduz, "U. Z."

AZOKAN

Baberrun gorri, 1,70 bi libre; txuri, 1,35; ollok, 18'tik 23'ra bi; ollaskoak, 12'tik 15'tera; usok, 4,50; konejuk, 10'tik 13'era; arantzak, 3,25'tik 3,35'era; sagarrak, 0,60 amabi; udarik, 0,50'tik 1,50'ra 12; Bertako gaztae, 3, bi libra; tomatie, 0,30 bi libra; artube, 0,50; bikue; gari, 0,45; patatie, 0,20 bikue; iltzeko zarri, 2,40 bi libra; azteko zerri 60'tatik 70 ara bat.

Azteko txala 120'tik 180 laurlekora.

SUA, SUA, SUA

Asteazken goizeko 1'tetik 2'tara Deun Augustingo kanpantxubak ta Damason Adarrak oju ori egiten zuten ta laister gizon talde aundi bat su tokian an zan.

Doroteoren istilluba.—Aundia zan bada suba gertun zuban bere etxe arimuban Segurola Ladislaoren olan bera zan lenbizi sutzaz oroitu zana bada su aize beruak lozorrotik atera zuban, ta pensa bere konkorroka zorruan dituba 287, librak zer istillu gorrian izango ziran korika egitean?

Su itzaltzaleak lan asko egin zuten, iñork minik artu etzuben langileak dira oker nork bereak zituzten langiteko tresnak, ta orain berrik bearrian dira. Tamalgarria da ola aseguratuba zegon.

Jaunak lagun deiela dienai. Agur.

URREKO ZOROA.

## DONOSTIA

ONGI ETORRI

Eztai ibilli aldia egin ondoren Donostiratu dira, gure lagun ta euskotar maite Olasagasti Xabier ta bere emazte zintzoa.

ESTROPADAK

Donostiko estropadeta etortzeko asmoz, donostiarraz gañera santurtzetarrak, bi pasaitarrak ta Getariarrak sayoetan dirala diote.

Oraindik besten bat sortuko da noski, ta itxuraz aurten ere estropada ederra ikusi biarrian gera.

IZTUNDEA 'LANIAN

Andoaingo Aita Larramendi'n opaz, ta Euskel Egunian antzeztu biar diran iru antzoki jaiak eratzen, gogotik ari da emengo euskel iztundee.

ANDOAINGO EUSKEL EGUNA

Arpide ontarako lenengo izendi ontan emandutenak dira:

Gipuzko B. B., 30 lauerleko; Donosti B. B., 25; Olasagasti Xabier, 25; Irazoki Ander, 5; "Atarrene", 5; Zumalakarregi' Jokin, 25; A. K., 5; Urain' J., 5; Andonegi' Ixidor, 3; Mendizabal' Gaspar, 5; Mendizabal' Jone, 5; Ugartetxea, Donata, 5; Egaña J. Imanol, 5; Arostegi' J. Mirena, 5. Orain arte, 153 lauerleko.

Asiera ederra, jarraitu orrela donostiarren euskozaletasuna zintzo azaldurik.

ATARRENE.

## GETXO-NEGURI

ANDOAIN'GO EUSKEL EGUNERAKO

Lendik, 48 laurleko.

Gaztelurrutia' Jon, 5; Etxeandia' Saturnino, 3. Orain arte, 56 laurleko.

NASKALDIYA

Gorbea menditik an aldi bat igaro ta etorri da barriro geure artera bere sendijagaz, geure adiskide Figeroa' Joseba Andoni. Ondo etorriak.

"JAUNGOIKO-ZALE"

Ill onen bigarren amabostaroari dagokiona artu dogu, ta beti lez oso ederto dator. Batez bere gaurko egunian bear doguzan ikaskizun ederrak dakaz. Zorijonak ta jarraitu alan.

LEXONA'KO ETXEBARRIA LANGILLEAREN ALDE

Irakurri dogu egunokaz "Bestea" adiskideak diñoana langille gaxo orren alde, ta emen bere zeozer egin bear da. Beartzuari lagundutia beti da gauza ona, ta Jaungoikoak onetsiten dabena. Gañera beartsua geure anaya bada bear ixana daukagu danok lagunduteko. Orregaitik ia zeozer batuten badogu erri onetan be; ainbat langille dagoz emen ta gaur zeugaitik ta bijar neugaitik egin bear da. Emon gura dabenak ezer, emon beyo "Erri"-ri Basarte' Jon Balasi ta neuri. Aurreko egun baten ipiñiko dogu batu doguna ta emon dabenan ixenak.

ALANGOKO BAT.

## IZURTZA

NASKALDIJA

Araba'ko Oletatik etorri ziran erri onetako txaunburua dan Areitiourtena on Leon eta Susana bere llobia.

Bilbao'ko "barraketara" juan da etorri dira Errotabarriko Satur bere emazte eta Miren alabiagaz.

Eusebio Irastortza, Errotako Segundo mutilla, eta Gotiko anaia biak Gerediaga Imanol semia, bere emazte eta arrebiagaz.

Egun batzuetan ogeratuta aurkitzen da Gerediaga' Imanol aita, eta uste dogu laster ikusiko dogula kalian. Asko poztuko giñake aolan izango balitz.

LUGIÑAK

Aspalditxuan alaitsu ikusten doguz gure lugiñok, eurek uste izan daben baño uste emon korragu a izan dabelako edo, geu be asko poztuten gara izan dabelako urte ugaria, lur sagarra izan da ugari eta ederra garia be ederra, eta ondo erantzun dautse, ortua be urte guztian ugari izan da eta aolan abere iana, baña: aragia ezta asko merktu jente meientzako. urte ugaria izan arren.

IRAKATSI GASTETXUAN

Geienian iazoten da eskola edo ikastola bako erria, erri atzeratua izatia, onegaitik eztot esan gura nik gure erri maite au azkenenguanetarikua danik ez, baña jakiteko, lenengo irakurten eta idazten ikasi biar dana danok dakigu. Balta edanok dakigu gure sei urteko mutiko edo neskatuari, erderaz edozer agindu ezkero be agoa zabalik geratuko dala, eta oneiri eskola pizkat erakusteko neure eretzien onena izango dala deritxat datorren neguko gau luzietan noberak erakutsi noberen neska mutikatxueri eta aolan ikasi egingo dabe erriko eskolan erderaz eta etxian Euskeraz. Iñok ezan lei bere kolkorako, gaur euskeriak eztau iñorako balio gaur euskeria askok urte daben baño zabalago dago. Une onetan gogaratu iat oifi bost urte inguru irakurri nebala eguneroko maite onetan, Gazteiz'en bizi dan ertilari (tallista) ospatsua eta entzute andiko Goikoetxea Erramon'ek bere erti lantegi andia ipinteko biar zituan tramankulu barriak eta emen inguruan baño obiauak edo merkiauak eukazalako Doitxerri edo Alemanian, eta otu iakan eskatutia tramankuluaren izen guztiak eta enparauak Alemanez uste dozue? ez, euskeraz, eskatu zituan, eta eskatu zituan guzti guztiak beingo baten bialdu zituen Goikoetxeari. Gaur onetariko gertaerak artu emanetan (komercio) asko izaten dira eta geruago ta geiago izango dira, gure euskera maite onek iñok uste baño, bide geiago egin dabelako. Onetariko on askotarako, gure neskato mutikoari alegiñaz, al dau guztia erakutsi biar dotsagu eta onetarako gaztetxotan erakutsi egin biar iake. Kazkonduagaz ikasi daien gure euskera garbian goraltzen, eta lotsatu bagarik, arrokeriagaz itz egiten.

ARTZAÑA.

## MAÑARI

YUAN-ETORRI

—Igandia Otzandiyo'ra osteria eginda egon ziran emen Kirikiño'ren illobiyan otoi egiten "Euzko-langille" batzarreko aldra bat. Euren artian ikusi genduzan Arrasate'ko "Udala-Mendi", Durango'ko "Errotari", Erandio'ko "Goiko" ta Eibar'ko Gaztelu.

—Lengo astian egon zan emen Larrinaga' Bitorene andrea, Basabe'ren alarguna.

—Donostia'tik etorri zan Larrea' Yoseba mutilla.

—Bilbo'tik Garrido Imanol eta Barrenetxea' Ander.

—Elgeta'ra yuan zan Telleria' Markel.

—Bilbao'ko yaiyetara yuan ziran Lezama-Legizamon' Eukeni ta bere emazte Muela' Aintzane andrea.

—Alditxu bat igaroten dago Plaza' Errikarta mutilla.

—Dima'ra yuan ziran Sarobe' Silbester eta Pausto.

—Eibar'tik etorri zan Usaola' Birkide andrea.

ARBI EREITIAK

Aste onetan baserritarrak arbi edo nabo ereiten diardue. Ainbeste euri zarrastada ederren ostian aro on-ona daguala ta, pozik diardue lanian. Egualdiya lagun badabe dituez amaitu ereitiok.

YAIYAK AMAITU DIRA

Igaro dan igandian izan zan aurtengo yaiyen amaiya. Egun orretan be, ezpatadantzariyak ikusteko atsegiña izan gendun. Azkenengo eguna zala-ta sekuleko umorian dantzatu ziran ¡eta zelan ekin be! makillak apurtuarte etzirean gelditu.

Ikusliai barre asko eraginda, eskuak minberatu arteko txalo ugariyak irebazi ebezan.

Oinguan "portau" zaree mutillak; eta ezpatai ugertzen ez itxi, ta datorren urtian be bardiñ egiñ.

Zoriyon ugariyak zeuentzat; eta berariz Arteaga' Eusebi mutil on eta zintzuari, dantzari aldriaren aldez lanik geiyen eindabelako.

LANAK AURRERA DUAZ

Mendizabal'en ur-saltu barriyan zintzo diardue lanian. Ille bi inguru da biarrian asi zirala, ta aurrerakada polita egin dabe. Orraitik guztiyak amaitu orduko aldiya ta lana asko ta asko biarko da.

GEIXUAK

Geixorik dago Llano' Imanole andrea. Arin osatzia opa dautsagu.

BASUAN BE GAUZIA UGERI

Aurtengo urtia, urte ugeriya dala ezta zetan esan. Solo ta baratzetan gauza gustiyak asko ta ederrak dagoz; atx-mendiyetan be bardiñ, dana ugeri, batez be basoetan dagoz.

Aurten, gaztiña zugatzak be igez lango bi agiri dabe, ta eder ederrak dagoz. Yaki gozo au, baserritarrentzat negualdirako lagungarri andiya izaten da; baña danoenzat be ezta txarto etorriko. Udagoiyenan kakua gogor erabili biarko da, danak batu biar ba-dira beintzat.

Larratuta dagozan abere-gorri ta beorrak, geiyenak lodi-loui ikusten dira, baiba, bedartza aundi gurjyetan etxetako soloetan baño be aukera aundiyagoaz dabilz ta.

Atsegiña da aldi onetan baso ibilketa luziak egitia. Egun argi ta ederretan lagun asko ikusten da; batzuk, aize garbi osasuntzuak artuaz egurastuten, beste batzuk, euren txakurrak albuan dabezala eizan, eta ez gitxi perretxiko bille ta lanian be. Eta danak mendiyak emoten daben berarizko alaitasun ederra agertzen dabe.

MAÑARIKO.

## MUTRIKU

EUSKEL-ASTEA

Oraingo ontan, sekulako bizkortasunakin ekin diogu Andoain'en egongo dan euskel astearren alde, arpidearekin.

Mutriku oso erri exkaxa izango da jente elegantientzako; baño bera bezela zarra dan Ama Euskerarentzat nai ta txiroak biztaliak izan, alduen eran esku zabalekuak.

Len, 13; Odriozola Gotzon, 5; Zubizarreta Joxe Mari, 1; Zubizarreta Joxe Manuel, 1; Aristondo' Erramun, 3; Arrasate' Andonin, 7; Arrasate Imanol, 1; Arrasate Joseba, 1; Arrasate Joseba, 1; Arrasate Elazar, 1; Arrizabalaga Martin, 1; Neska polit bat, 1; Arrieta' Domeka, 2; Osoro Pantzeska Mirena, 2; Zumalabe, Balendin, 5; Ansola Elazar, 1. Guztira, 45.

Gure diruzai Premiñ, oso estututa ibilli da juan dan astian; bada 13 laurleko bildu, ta 15 ipiñi; ez da "Banco Mundial"-ko kiebra etorri izan balitz ere! Ala ere "Axarre"-ko garagardo botillak lasai ustuko dituk bai.

EUSKEL-IZENA

Orain dala egun batzuk uguzau zuten emengo eleiz nagusian Arrizabalaga' Martin'en semetxo bat, Bernardin euskel izenakin.

Zorionak, ta tostarteko bizkor izan deixela.

AGUR

Gaur igandez Begoña'ko Ama'ri agur egitera, nexka gazte polit eta lirain batzuk dijuaz automobil eder baten txistulari ta guzi. Or Bilbo'n daudezen Mutrikuarrak zintzo zintzo juan biar dute beren erritarrai arrera ona egitera eta bide batez laurleko batzuk eman Andoain'go euskel jairako daukagun arpidea gizendu dedin.

Oraingo ontan bai! entzun, ¿e? Or kanpuan bizi zeraten. Mutrikuar guztiok arpiderako zerbait onera biali bestela...

NASKALDIE

Gazteiztik etorrita emen dagoz Lekube Terese ta Malen. Eskoriatza'tik Etxeberria apaiza.

¡BA GERA!

Mutriku'n dirua oso errez gastatzen duala udal edo Ayuntamentu jaunak, errikо biar dan gauzetan diote askok, ¡bai e! ta, zergatik joten diote jaietan zantzarraria eleizan?

Tira, iñor lotsatu baño len ipiñi zazute organu berri bat bestela galleguak kontratau.

ABERRI.

## ONDARRU'TIK

Mutill batek bere andragei maitian kartie irakurten daben pozagaz bezela irakurri dot "Elene"-k lengo egun baten ementxe atal onetan idatzitako "Euskel-egunak zetarako!" ziñoan ataltxu bat.

Aiñ ederto jakiñ euskeraz idazten da, zetan eiñ eta dozu "Elene" eiñ dozun egotaldije?

Nik eztot uste zeure seme-alabatxuak apaindutа laztantzen izengo zanik lengue ba'zara beñepeiñ. Neu mutill zaartute nau baiña, zeu be... tire ixillik egon gaitien" esango zeunskide zeugaz ba'nengo. Da gañea diñotzut ze, Zubi-barri ingeruko idazle ori, eztala zuk uste dozun gazte ederra. Dana dalakue; zuk jarraitu "Elene" zeure euskeraz idaztitxuok argitzen ijeketa barriro agertu zarien, da, bijen bitartien, guk lagunok be zeozertxu eingo dogu ta. Ixeleike egote gitxi barru, zeutaiko bat edo batzuk zeure bidiari jarraitzie be. Baite uste dot Zubi-barri ingeruko idazle jaunak be bardiñ eiñgo dabela, bere ixiltasune alde batera itxite.

—Erriko jaijetan txirrindularijek euki eben geldi-geldi estropadan "carrera de lentitud" sarije edo premijue atara ebenak dire: 1'n Apraiz' Peli; 2'n Iturbarri'ko Pedro eta 3'n bertoko gazte bat.

Baita zinta estropadan be mordo polite atrapau eban Peli'k.

—Erdelounen erromerijen "verbena"-n goixeko ordubijetaraño jantzan ekiñ zioenak be, ezeben beste zereiñ andirik euko arraño ordu artaraño zirri porro zirri-porro bertan ekiteko. Ori gero aurrerauko egunetan Motriku'ko eresbatzak emon zituen abijada aldijeri jantzan gogoz erantzunde.

¡Ai, tokaio, olan ibilteko buskentza arintxu bi dok, ez jan-edan neikue eiñde gero...!

TROKOTZ.

## ZEANURI

ERIOTZA

Ugerka'ko auzunian 82 urtegaz il da bertako etzandera ixeratxu dan Antondoa' Petra. Berau izanda lenagoko gauzen gordetzalle zintzoa. Laguntzen dautsegu atsekabean sendiari da bere seme Karmeldar Emaldi Abari.

GEXORIK

Oso txarto aurkitzen da Manterola' Batirtze neskatotxoa.

PELOTA TOKIA

Egunero darrai yokatuten oste ondie. Danak goralduten dabe ain ederto egiñeko lana. Zamalloa ta Imaz auron beargin azkarrakaz Errotaetxe' Iñaki• jauna artezkri dabela ille terdien gauza andia egin dabe.

BASERRITAR BAT.

## Pelota-toki-ospakunde egunean

ALDUNA'I

Pozaren pozez egun onetan
biotza dogu zabalik
Geure ongillok besarkatuta
Agur eiteko gertaurik.
Erri txiroaren ikertuten
Aldunak etorri yatzuz
euroen aldez ezer eiteko
asmurik, ¿ez ete dozu?

Sei ikastola egiñekoak
dirade deputeduak;
Altun-mendia zugatzez yazten
eur-eurak lagundukoak.
Eurok dabiz oin basetxeari
gogo zintzoz lagunduten,
Obere eta, lugin gauzetan
irakatsiak emoten.

Eurok dira be aguretxoai
ogia askatukoak
eurok dira ba estukuretan
erriai lagundukoak
Eurok dira ba, gure zaindari.
Eurokan itxaropena,
Jaunak, lagundu, ez uste dala
erri au aberatsena.

Jaunak, ez aztu geure erriak
artzañak ditu ugari
oneintzako he arren zertxobait
aztu bagarik ekarri.
Agur aldun ta Jaun on orrei,
gogoz Bizkaya'n zaindari
Zeanuiztarrok zuron izena
biotzan euko du beti.

AZKARRAK

Agurtzen dogu baita be zintzo
Errotaetxe Iñaki
Ain gertu dabil nekatu barik
lagunduten erri oni.
Gauza danetan estaldu barik
beren esku ta gogoa
non ta nogaz nai agertuten dau
danontzat biotz beroa.

Eztot esaten entzun dagian!
¡Eztaukat andikeririk!
¿Ba'dogu ezer Errotaetxe'k
eskurik ezarri barik?
Urraburu'ren zeia, ¿esaizu?
Ezautzen dozu Iñaki!!!
Iturri eta yolastegia;
¿Nor da zuon apaindari?

ZIDORRA.

(Jarraituko dau.)

## Nere ezkon-anai Elortza Iñaki'ri (G. B.) azken-oroipena gogo biotzez

ERIOTZA

Eriotza. Itz aztuna, itz sakona, biotza samintasunez eta begiak malkoz betetzen ditun itza.

Eriotza. Gauza guztien egilliak, Jaungoikuak guziontzat jarri duan erabakia, eta beria dan lez betetzen dana, lenago edo gerotxuago.

Eriotza. Kristauen azkena, pozgarria gexorik egon ondoren Agur eginda, bere Jaunartziak eta gañerakuak ondo egiñ ondoren dijuanian, zuzen zuzen Donokira.

Eriotza. Beldurgarria eta samintasunez biotzak betetzen dituana, gero-arte esanda geiago bere itzik aitu ezinda juten diranian, gure Iñaki jundan lez.

Eriotza billatu uken Iñaki maitia zorionak parre-irri egiten ziken garaian, eriotzak gizon biotz gabekuak lez, salduta eraman au gure artetik betiko, bañа aiñ ona izan aiz eure bizian Jaungoikuak Bere beso errukitsuetan artu au.

Eriotzak, eta ire eriotzak Iñaki maitia negar eragin ziuk danori eta ordurik beltzenak igaro dizkiagu, eta igarotzen ai gaituk biotza erdibituta daukagula.

Eriotzak, Iñaki maitia erdibitu zizkiguk gure amesak Motrikun, Arrasaten, eta Zumarraga'ko Euskel egunerako poza eta bertan i gogoz eta pozez abesten ikusi iñdutan, ala aurtengo Andoainguan ere ikusteko asmuetan nenguan, bañа... Eriotzak eraman au gure ondotik Jaungoikuangana.

Eriotzak, ixildu dik ire abos-zolia, gortu dizkik ire belarriak, itxutu dixkik ire begiak, oztu dik ire gorputza. Il aiz betiko Iñaki maitia...

Jaungoiko maitia!! Itzuli zazuz gugana zure begi errukitsuak eta eman egiguzu indarra, batez ere nere arreba maitiari samintasun garratz au eraman dezan.

Artu zazu zurekin gure Iñaki ludian aiñ ona izan dana, ¡¡¡erruki zatez beratzaz...!!!

Agur Iñaki maitia...! Ik ludi ontan ona izan aizelako saria artu dek onezkero zeruan, gu emen gelditzen gaituk loi tartian, argitu eizak gure adimenak eta ez gaitzak utzi aldentzen bide ortatik.

Ume jaio intzan, ixillik, eta ala il aiz, ixil-ixilik. Agur ere egin gabe, ire biotza ume batena bezela zan dek, maitasun utsa, alaia, zindua... orrengatik ainbestek lagundu zian azken illobira, orrengatik ainbeste biotz saminau dek ire eriotzakiñ.

Otoitz irakurle Euskaltzale ona izan dan Iñakiren gogo alde, ba berriz ez dezu txalotuko bere abosa Euskel-egunetan, eta Euskel-antzerkietan.

Agur Iñaki maitia, negarrez garek ire eriotzakin irekin ez gaituk aztuko, ire gurekin gogoratu ari, esari aztu, eta ire Euskalerria ere aurrian euki zak.

Agur Iñaki... gero arte.

Goian bego.

ALTZETA.

ESKERRAK

Elortza' Iñaki, G. B. bere il otoitzetara etorri zeraten danori eskerrak. Eskerrak Bilbao, Portugalete Zornotza, Durango, Eibar, Elgoibar, Soraluze, Arrasate, Aretxabaleta, Oñati, Bergara, Zumaya, Getari Lekeitxio, Motriku, Zarautz, Donostia, Tolosa eta ganeratiko errietatik bere illobiratzera etorri zerateneri. Eskerrak Euskal idazle adixkide maitiak lagundu didazutelako aigabe garratz au eramaten zuen idazki maitekorrekin. Eskerrak idazkiz eta urrutidazkiz zuen laguntza bialdu didazuneri ere, ikusi det zeiñ maite zenduan gure Iñaki, berak ere maite zinduen danok. Ondo dakizue zenbat.

Zuen danon otoitzak aren alde izan deltezela, eta eskerrak, bañа biotzez dan--danori, Agur adixkide maitiak.

ALTZETA.

## TEMAS DE VASCOS

CONFESION DE PARTE

En cierta revista que el lector fácilmente adivina, se dijo (número 1, pág. 4, final de cada columna) que *aren* NUNCA era posesivo en el uso bizkaino, sino siempre demostrativo. En la misma revista (VI-128, columna segunda, fin) se escribe: "¿Que algunos autores bizkainos traducian muchas veces el *su* por *aren*? Concedido." Antes se dijo que nunca *en el uso bizkaino*, ahora se dice que muchas veces en *algunos autores bizkainos*. Nótese que no hay más que aquellos "algunos" en tiempos relativamente remotos.

PALABRA DE VASCO

Tentado estuve de trascribir estas dos afirmaciones, que se destruyen a sí mismas, sin que haga falta para ello ningún Orixe; pero como la revista prometió "dar por terminada la discusión" conmigo, aun "dejando de publicar algunos artículos más que se habían recibido" (Ibid. 129), no lo juzgo oportuno, por aquello de "a enemigo que huye, puente de plata". Pero como esa palabra de dejarme en paz no ha resultado de vasco, pues la revista, con "Arbi" (VIII-158), me ataca de nuevo directamente, he juzgado oportuno aprovechar la ocasión. Con el señor "Arbi" ni siquiera su revista está conforme, pues le manifiesta su disensión en una nota. Nosotros le dejaremos en paz hasta que haya arreglado el pleito de su casa y después, probablemente, también.

OTRAS MIGAJAS

Invito a la revista amiga a que lea en el "Jaungoiko-Zale" (número 354, pág. 236 y siguientes) el artículo de "Gurutz", vizcaíno, correspondiente de la Academia Vasca, si no me engaño, y hallará cuatro ejemplos de *aren*, donde aquí se estaba poniendo siempre *bere*. Y no me venga embrollando la cuestión y con apariencias de mala fe ningún euzkerista, peor si es religioso. "Tradúzcase como se traduzca—dije en el estado de la cuestión—, es un hecho evidente que donde antes usaba *aren* el vizcaíno hoy usa *bere*".

Orixe quedó hecho añicos y, por consiguiente, más muerto que su abuela; pero su teoría, mal dicho, la teoría tradicional, empieza a revivir en Vizcaya. Datos tengo de Otxolua, Belumendu, Lauaxeta y otros para los cuales no he hablado estérilmente. Y son de los mejorcillos escritores vizcaínos.

¿CONTRA QUIEN?

Tiene empeño la revista amiga de ponerme como "contradictorcillo" de Sabino Arana, llamándome incapaz, superficial y otros piropos que abundan en sus páginas.

En la cuestión del *bere* empecé temiendo por contrarios a varios académicos de la lengua vasca antes que a los de "mi" revista. Yo no voy contra nadie en particular, y si voy contra Sabino voy contra Axeta. Respeto a las personas, pero sus opiniones, no si no me parecen respetables. Ni tampoco acudo a la injuria, como mi revista, ni a la calumnia, de que hoy no me puedo defender. Habrá tiempo y lugar para todo, si Dios lo da. El lector puede repasar el juicio que dejé estampado sobre Sabino en mi "Resumen de la literatura vasca", premiada con el premio del Ayuntamiento de San Sebastián. No me desdigo de lo dicho, y creo que le hago honor, y después acá he hecho que aparezca digno de sí. No como sus vehementes defensores, que no conseguirán sino empequeñecer y hacer odiosa su figura, trayéndola y llevándola en triquiñuelas gramaticales.

UN BUEN CONSEJO QUE ME DAN

El consejo me lo sabía de memoria, aunque está bien que me lo recuerden. Los lectores de mis artículos saben la simpatía con que yo miro a la caduca ciencia lingüística y lo que he clamado porque dejemos esas cuestiones y hagamos literatura. Pero esta vez me envolvieron, y véase cómo. Tratábase de distinguir el adverbio *bere* del posesivo su homónimo, y "una" de las maneras de no confundirlo era, a mi juicio, el usar con más parquedad el posesivo y el desterrar su vicioso uso, como ya se comienza a hacer. Desde luego, la discusión no ha sido estéril, como se ha visto, y en segundo lugar la discusión honrada en nuestro idioma, que fué como yo la empecé, es de grandísima utilidad, aunque no sea más que por extender el uso de ella a algo más que "kaikukeris". Buena falta nos hace que se discuta de ciencias y de todo en nuestra lengua. Algo más vitalidad alcanzaría.

Perdone el público la lata y procuraré cumplir el consejo que hace años estoy dando a otros y ahora me recuerdan. Pero que no le toque a nadie hallarse en mis circunstancias, porque es posible que se olvide del consejo en la práctica.

ORIXE.


✝

EL SEÑOR

**Don Tomás Gaueca y Legarreta**

Capitán de la Marina Mercante

(Q. E. P. D.)

**Falleció en Gijón el día 23 de agosto de 1929**

a los 57 años de edad

Habiendo recibido los Auxilios Espirituales y la Bendición A. de S. S

SU DESCONSOLADA ESPOSA, DOÑA MARIA LANDARTE; MADRE, DOÑA JOSEFA; HIJOS, DON JOSE MARIA, DOÑA LAURA (AUSENTE), DOÑA BELMIRA, DOÑA JOSEFINA, DOÑA ELOISA, DOÑA MARIA LUISA, DOÑA MIREN, DON TOMAS (AUSENTE) Y DOÑA ELISABETE; HIJOS POLITICOS, DON JOSE ARECHABALA (AUSENTE), DON JOSE MEÑACA Y DOÑA PILAR NARVAIZA; MADRE POLITICA, HERMANOS POLITICOS, PRIMOS, SOBRINOS, NIETOS Y DEMAS PARIENTES,

SUPLICAN a sus amigos se sirvan encomendarle a Dios en sus oraciones y asistir a los funerales que se celebrarán en sufragio de su alma en la iglesia parroquial de San Nicolás de Bari de Algorta, el día 26 de agosto, a las DIEZ de la mañana, por lo que quedarán reconocidos.



**URALITA**

Gran Vía, 5. 1.º—Teléfono 11078

CEMENTO PORTLAND

"ZIURRENA, S. A."

(EL MAS SEGURO)

Propiedad de la Sdad. marca "Cangrejo". FUEROS, 2. :-: TELEFONO, 12.258

TINTORERIA INGLESA

Plaza Nueva, 5. Teléfono número 13.071